

**FORU AGINDUA, NAFARROAKO FORU KOMUNITATEAN UNIBERTSITATEAZ
KANPOKO IRAKASKUNTZEN HEZKUNTZA-EBALUAZIOAREN ESPARRU OROKORRA
ARAUTZEN DUEN FORU AGINDURAKO PROIEKTUA PRESTATZEKO PROZEDURA.
AURRETIAZKO KONTSULTAREN AZKEN TXOSTENA**

Ezarritako prozedurari jarraikiz, Gardentasun Atarian egon zen ikusgai 2021eko urriaren 15etik azaroaren 8ra (biak barne) honako xedapen hau: Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzen hezkuntza ebaluazioaren esparru orokorra arautzen duen Foru Aginduaren proiektua egin aurreko kontsulta publikoa.

Aldez aurreko kontsultaren xedea da foru agindu berriaren eraginpean gerta litezkeen herritarren eta ordezkariak duten erakundeen iritzia jasotzea, unibertsitatez kanpoko irakaskuntzen esparruan, ikastetxeak, zuzendaritzaren eginkizuna, irakaslan eta ikasleek eskuratutako eskumenak ebaluatzeko esparru integratua garatu nahi baita, 2/2006 Lege Organikoan ezarritakoa bete beharrez.

Izan litezkeen alegazioak jasotzeko helbide elektronikoa Hezkuntza Departamentuko Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuarena zen, baina helbide horretara ez da alegaziorik jaso Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzen hezkuntza ebaluazioaren esparru orokorra arautzen duen foru aginduari buruz aldez aurretik egindako kontsultan.

Iruñean, 2021eko azaroaren 23an
HEZKUNTZAKO IKUSKAPEN
ZERBITZUKO ZUZENDARIA

Alberto Urrutia Lecumberri
(Sinadura jatorrizkoan dago)